

BANDOA

Mungiako Udaleko Alkate-Udalburuak, Udal-ordezkarri politiko guztien adostasunagaz, **martiaren 8a Emakumeen Nazinoarteko Eguna** dala eta, **Berdinsarearen Adierazapen Instituzionalagaz** bat egiten dauela adierazoten dau.

Dimentsio desbardinak dituan **krisi sistemikoa bizi dogu**. Pandemiak eta berorren kudeaketak baldintzatu daben urte honetan, **zaintzaren arduak andrazkoen lepo-ganean jarraitu dau**, bai zerbitzu publikoetan (osasungintza, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, merkataritza eta elikadura...) bai etxe-barruetan bere. Eta hori gitxi bada, emakumeen euren artean bere arduron banaketea desorekatua da, hau da, gizarte-klase, arrazializazioaren eta migrazino-estatusaren arabera. Horren ganera, kasurik gehienetan baldintza prekarioetan egindako beharrak dira.

Bardintasun bako banaketa horrek, batetik, gainkarga eta ondorio kaltegarriak dakartsez **emakumeen osasunari eta bizi-kalidareari** eta, bestetik, zaintza-sistemaren ahuldade eta prekaridadea jartzen ditu agirian. **Gure gizarte-ereduan familia barrutikoak dira zaintza-lan gehienak**, eta andren esku ixten dira. Izan bere, aroz sano gitxi dira eremu publikoan erantzuna emoten jakenak.

Hori dala eta, gizarteak bere aitortpena adierazteko daukan moduak konpromiso sendoa agertu behar dau, bardintasun bako banaketa bidegabe horri euskarria emoten deusien genero-arrakalen kontra gogor egiteko konpromisoa.

Udalok gagoz pandemiari eta horrek herritarrengan dituan ondorioei kontra egiteko borrokan aurrerengo. Horregaitik, honako konpromisoak hartzen doguz:

1. Gizartean zaintza antolatzeo **ereduari buruzko eztabaidaren** buru izan eta bultzatzea, ikuspuntu feminista erabilia.
2. Kolektibo ahulenen egoerari eta beharrezan gane **analisis** egitea, genero-ikuspuntutik begiratuta, baita COVID-19aren ondorioen gane bere, eta euroi aurre egiteko premia **neurriak martxan jartzea**.
3. COVIDaren krisiaren eragina arintzeo onartzen diran **laguntza eta babes-programa** guztietan genero-ikuspuntua erabilten dala bermatzea.
4. Tokiko zerbitzuetan konponbide bideragarriak aztertzea eta ezartzea **adingabekoen eta mendekotasuna daukienen zaintza laguntzeo**, ahalegina eginda zaintza hori baldintza duin eta bidezkoetan egin daiten, bai zaintzaileari eta bai hartzaileari adituta.
5. **Udalen Bardintasun-plangintzetan**, propio azpimarratzea emakumeen ahalduntzea, zaintzaren balioa, eta ardura horretan gizonak daukien **erantzunkidetasuna**.
6. Bardintasuneko tokiko politikak garatzeko eta generoa tokiko politika guztietan zehar-lerroa izateo erabilten diran **giza baliabideak eta baliabide tekniko eta ekonomikoak** sendotzea eta babestea.
7. Tokiko **zaintza-sare komunitarioei** babesa emotea.

Amaitzeko, herritarrei deia egiten deutsegu martiaren 8ko aldarrikapenari era aktiboan eusteko eta horretarako geuk antolatutako jardueretan parte hartzeko, beti bere gaur egoera eskatzen dauen erantzukizun eta sensibilitadetik abiatuta.

El Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Mungia, de conformidad con la totalidad de la representación política municipal, y con motivo del **8 de marzo, Día Internacional de las Mujeres**, declara que se adhiere a la **Declaración Institucional de Berdinsarea**.

Vivimos una crisis multidimensional y sistémica, marcada por la pandemia y su gestión, **donde la provisión de los cuidados ha seguido cayendo en las mujeres**, tanto en los servicios públicos (sanidad, educación, servicios sociales, comercio y alimentación,...) como en el interior de las casas. Incluso el reparto entre las mujeres se da de forma desequilibrada, por clase social, por racialización y estatus migratorio. Por si fuera poco, en la mayoría de los casos se trata de trabajos en condiciones precarias.

Este desigual reparto, además de la sobrecarga y sus **consecuencias sobre la salud y calidad de vida de las mujeres**, también ha desvelado la debilidad del sistema de cuidados. **La mayor parte de los cuidados se dan en el ámbito familiar**, y recaen sobre las mujeres, siendo minoría los que se atienden en lo público.


Por tanto, el reconocimiento social debe expresarse en forma de un férreo compromiso público para combatir las brechas de género que sostienen este reparto desigual e injusto.

Los Ayuntamientos, que somos los que estamos en primera línea para combatir la pandemia y sus consecuencias sobre las personas y comunidades, nos comprometemos a:

1. Impulsar/liderar el **debate sobre el modelo** de organización social de los cuidados desde un enfoque feminista.
2. **Analizar** con enfoque de género la situación y necesidades de los colectivos más vulnerables y los efectos de la COVID-19, y **poner en marcha medidas** urgentes para hacerles frente.
3. Garantizar la **incorporación del enfoque de género** en todas las medidas que se aprueben para paliar los efectos de la crisis del COVID en materia de **ayudas y programas de apoyo**.
4. Estudiar y articular soluciones viables para los servicios locales de **apoyo al cuidado de menores y personas dependientes**, procurando y/o facilitando el cuidado en condiciones dignas y justas, para quien lo da, y para quien lo recibe.
5. Incidir en los **Planes de Igualdad municipales** de manera expresa, en el **empoderamiento** de las mujeres, la puesta en valor de los cuidados y la **corresponsabilidad** de los hombres en los mismos.
6. Reforzar y preservar el **personal y recursos técnicos y económicos** para el desarrollo de las políticas locales de igualdad y de la transversalización de género en todas las políticas locales.
7. Apoyar a las **redes comunitarias de cuidados** a nivel local.

Finalmente, llamamos a la ciudadanía a mantener activa la reivindicación del 8 de marzo y a participar en las actividades que organizaremos a tal efecto, siempre desde la responsabilidad y sensibilidad que requiere la actual situación.

Mungian, 2021eko martiaren 6an



ALKATEA
Ager Izaguirre Loroño